

# Harian

13 • Ezker abertzalea aurkeztearen alde

Friendship Europako babes taldeak dio ezker abertzaleak bozeta egin behariko lukeela.

## Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena

Kondor Legioaren hegazkinek Gernika bonbekin eraso zutenetik 70 urte beteko dira gaur. Bonbardaketa bizi zutenek herriaren irudia bizi-bizi dute gogoan: «Sua besterik ez zen».

MIKEL CARRAMINANA  
Gernika-Lumo

**E**spainiako Errepublikako Gobernuaren aurka matxinatuak Euskal Herria hartzeko lehian ari ziren 1937ko apirilean. Jose Antonio Agirre lehendakariaren gidaritzapean Bizkaia babesteko borrokan ari ziren gudariak eta batailoi ezkeriarrek. Eibar (Gipuzkoa) hartu berria zuen Mola jeneralak eta, Bilborako aldean, izuaren estrategia hallatu zen aurrera egiteko. Propaganda orriak zabaltzen zituen errenditzea eskatzeko, Bizkaia birrinduko zuela mehatxuarakin, horretarako bitarteko nahikoak bezainuz agintzen zuten orri horietan. Otxandio eta Durangoko bonbardaketekin frogatu zuen benetan ari zela. Handik gutxi, apirilaren 26an, mundu osoan oihartzuna izango zuen erasoari ekin zion Alemaniako Kondor Legioak eta euskaldunen sinbolo zen Gernikako herria bonbekin eraso zuen. Gertaren hondamendiaren eta bakearen ikur bilakatu zen harrezkera.

Gernika gerra frontetik 30 kilometrora zegoen eta garai hartan 8.000 biztanle inguru zituen. Francoren aldekoek bonbardaketaren ostean esan zuten ez helburu militarrik baziren herria. Errenteria zubia kasu. Arratsaldeko 16:30ak aldera, Dormier 17 hegazkin bakar bat agertu zen herria, 50 kiloko 12 bomba jaurti zituen, guztiak zubitik urrun. Laster agertu ziren Italiako Savoia motako beste hiru bomba hegazkin. Hiru ordu eta erdi, Kondor Legioaren gainerako hegazkinak, Heinkel 11 eta Junkers 52ek, hogei inguruk, 30.000 kilo lehengaiu jaurti zituzten Gernikan.

Askotariko bombak erabili zituzten, pisu eta eragin desberdinetakoak. Leheritzeak eta su-eragileak. Halako bomba txikiak sua zabaldu zuten herri osoan. Bitartean, Heinkel 52 ebiza-hegazkinak metralletaz tirokatzen zituzten ihes egiten ari zirenak. Lehenengo bonbekin kampanien hotsak entzun eta babeslekuetara jo zuten herritar askok. Besteek mendira ihes egin zuten. Ehunka lagu-



Bomba su-eragileen ondorioz, Gernikako hamar eraikinetatik zazpi suak kiskalita gelditu ziren. BERRIA

## 70. urtez gerra eta bakearen ikur



Itziar Arzanegik, Josefina Odriozolak eta Pedro Baliñok Gernikako bonbardaketa bizi izan zuten duela 70 urte. MONIKA DE WILF/ARAZA PRESS



nek, ordea, ez zuten non ezkutatzerik izan. Eusko Jaurlaritzak 1.600 hildako baino gehiago izan zirela esan zuen orduan, suak kiskalita-koak zenbatzea zaila zen arren. Egun, historialari gehienek onartzen dute 400 hildako inguru izan zirela. Manuel Monteroren arabera, 250 inguru izan ziren. *Eguna* kazetak bonbardaketaren berri eman zuen apirilaren 28an: «Etxe gutxi gelditu dira ukitu barik Gernikan. Alde gehienetan jausi ziren bonbak. Elizak ere su eta gar ageri dira, kea eta odola besterik ez dago».

Bonbardaketa bizi zutenek dira, alabaina, egun hartako kronikarik siniesgarriena plazaratu dezaketenak. 70. urtez gogoratuko dute gaur Itziar Arzanegik, Pedro Baliñok eta Josefina Odriozolak arratsalde hartako sarraskia.

**Itziar Arzanegi**  
BONBARDKETAREN LEHURJAKO

«Koadrokoak baino okerragoak izan ziren kaleko irudiak»

Pablo Picassoren artelanari begira, Itziar Arzanegik koadroaren behaldea besoak luzatuta agerituen giza irudiari erreparatu dio. 81

urte ditu gaur egun, baina 11 besterik ez zituen Alemaniako hegazkinek Gernika bonbardatu zuteneko. «Hauek baino okerragoak izan ziren kaleko irudiak», dio koadroa eskuan. Inoiz ez da Madrilera joan benetako koadroa ikustera: «Zertarako? Originala ikusi nuen, benetan gertatutakoa». Asteleheneko azoka eguna zen 1937ko apirilaren 26koa.

Herriko alde zaharrean bizi zen arren, egun batzuk lehenago lehenaguen Lumoko baserrira eraman zuten. «Mendian zegoen eta handik, Gernika osorik ikusi zit-

keen, balkoi baten modukoa zen». Handik ikusi zituen arratsaldeko laurak aldera iparraldetik etortitako lehenengo hegazkinak. Laster «bonben danbada eta tiro hotsak» izan ziren nagusi. Beldurtuta zegoen baina etxetik atera zen lehengusinarekin. «Lurretik arrastaka atera ginen eta pinudi batean ezkatuta». Aurrean garrasika ari zen emakume bat ikusi zuten. «Gudari batzuek isiltzeko eskatzen zioten, hegazkinak erakari eta bertan hilko zutela bestela». Handik gutxira hegazkin bat agertu eta andrea hil zuen. Ikaratuta